

34. atala: Taldeka

Halloween

34.1.- Binaka zaudetela, erantzun galderei:

- Zein festa da Tasiok ospatzen duena? eta Kevinek ospatzen duena?
- Zer iritzi du Tasiok Halloweeni buruz?
- Eta Kevinek Santu guztien ospakizunaz?

34.2.- Garbi dago gure protagonistak ez direla ados jartzen jaiak ospatzeko kontuan. Eta zuek?

Taldeka jarri eta erantzun:

- Zuek zer ospatzen duzue? Zerbait berezia egiten duzue egun horretan?
- Zer da hobeia Halloween bezalako jaiak ospatzea ala gure jai erlijiosoekin jarraitzea?
- Batzuen ustez, ospatzeko baldin bada, denak balio du. Ados zaudete?
- Santa Klaus, Olentzero, Errege Eguna... Berdin da edozein?
- Halloween, San Balentin, Oktoberfest (garagardoaren feria)... Denak zaku berean sartzeko modukoak dira?

34.3.- Halloween-gaua da gaur, eta heriotzarekin lotutako kontuak dira protagonista: mamuak, arimak, hildakoak, mamu-itxurako kalabazak, sagu-zaharrak, munstro-itxurako gizakiak eta abar. Pentsa ezazu gaur Halloween ospakizunera gonbidatu zaituztela. Nolako mozorroa eramango zenuke? deskribatu talde txikian.



Adibidez: ni gaur gauean banpiroz jantziko naiz. Letagin luzeak jarriko ditut eta odol-arrastoak margotuko ditut kokotsean. Aurpegia zuriz margotu eta kapa handi beltz bat jantziko dut.



34. atala: Taldeka

Transkripzioa (03:16)

- K- Tasio... Ba al dakizu ze egun den gaur?
 T- Zehatz mehatz?
 K- (Burla egiten) Zehatz mehatz... zehatz mehatz... Ezin duzu modu normalean bai edo ez erantzun?
 T- 2056. urteko urriaren 31.. zehatz mehatz...
 K- Urriak 31...
 T- Bai..
 K- Eta?
 T- Eta?... Zer?
 K- Ospatu beharko dugula...
 T- Ospatu zer?
 K-Zer izango da ba? Halloween!
 T- Ba ez ninduan akordatu ere egiten...
 K- Nola ezetz? Zu? Tradizio guztien zaindaria... euskal sustraien ongarria...
 T- Ongarria? Ez hadi pasa... gainera Halloween ez duk guztiz ohitura euskalduna.
 K- (moztuaz) Baina Halloween betidanik ospatu da ta Euskal Herrian!
 T- Betidanik-betidanik...
 K- Nola ezetz? Zuk oroitzen duzu Halloween-ik gabeko garaia?
 T- Nire haurtzaroan ez genian halakorik ospatzen ba...
 K- Hain zaharra al zara?
 T- Garai batean azaroaren lehena Santu Guztien eguna izaten huan...
 K- Santu Guztien eguna? Erdi Aroko jai bat dirudi.
 T- Ba jakin ezak... oraindik, azaroaren lehendabizikoan, Itziarren adibidez abere azoka ospatzen duala.
 K- Abere azoka? Esandakoa... Erdi Aroko jaia.
 T- Esan nian senarrak, Antxonek, pottokak hazten dizkiala... eta seme-alabak hartuta halakoetara joaten gaituk...
 K- Jai egun bat pasatzeko ez zait modu hoberik okurritzen...
 T- Denetarik egoten duk: behiak, zaldiak, pottokak, ardiak, emuak, llamak, ganbeluak...
 K- Bai eta guzti horiekin batera datozen milioika euli eta kaparrak...
 K- Guk festa egiten dugu urtero. Trasteroan gordeta ditut mozorro eta apaingarriak... Eta, beno, gero festarako bestelako litxarkeriak erosten ditugu...badakizu.
 T- Ez... ez zekiat...
 K- Bai ba... prezisamente ganbeluei erosten zaizkien litxarkeriak...
 T- Ba, zer esatea nahi dek Johnson?... bazekiat tradizio handia diala Halloween-ek gurean, baina niri ez zaidak batere gustatzen...
 K- Harritzekoa... gaez eta parrandarako aproposa den festa ez zaio gustatzen gure basajaunari...
 T- Ez duk hori... kontsumismoaren festa dela iruditzen zaidak. Nik nahiago dizkiat ospatu naturarekin eta arimarekin zerikusia duten jaiak...
 K- Etzaitze hasi orain festa paganoen kontu guzti horrekin.. sua, amalurra eta tunika zuriak... Hori bai dagoela zaharkitua... duela 50 urteko neo-hippyen kontuak dira...
 T- Hik ez duk benetan ezertan sinisten?... Benetan haiz hain hutsala?
 K- Nahi dezuna esan... baina gaur Trebiñu II-n, Euskal Herrian jai ofiziala den Halloween ospatuko dugu... (biratu eta ohikatuaz) Hal-ione jarri girotzeko musika apur bat!!

Erantzunak

34.1

- Tasiok Santu guztien eguna ospatzeko ohitura du. Kevinek Hallween.
- Tasiok Halloween ez dela ohitura guztiz euskalduna dio eta ez zaio gustatzen.
- Kevini Santu guztien eguna Erdi Aroko jai bat iruditzen zaio, festa zaharkitu bat.